



# NOLA SORTU GINEN

LEHEN HEZKUNTZA | 1. MAILA

# KAIKO,

**MARTXELA BALEA NAIZ**, OSO URRUTI JAIO NINTZEN BAINA HONDARRIBIA ALDERA ETORRI NINTZEN BIZITZERA, AMUITZ UHARTERA, ETA NI EHIZATZEN SAIATU BAZIREN ERE HIGER LURMUTUR AIEKAN IGERIAN IBILTZEA MAITE DUT. JAIETAN HERRIAN BARRENA TXOL KONTENT IBILKI NAIZ, ERRALDOI ETA BURUHAUNDIAK LAGUN, ZUEKIN GUZTIEKIN JOLASEAN.

## ETA ZU?

NOR ZARA?

ZENBAT URTE DITUZU?

NON JAIO ZINEN?


NON BIZI ZARA?

JARRI BERTAN ZURE  
ARGAZKI BAT,  
EDO MARRAZ EZAZU  
ZEURE BURUA:







## NOLAKOA DA HONDARRIBIA?



4

EZAGUTU HONDARRIBIA

EZAGUTZEN DITUZU HONAKO TOKI HAUEK? ESANGO DIDAZU ZER DIREN, NON DAUDEN, NOLAKOAK...



HARA NIRE BIZILEKUA, **AMUITZ**.



# ZEIN DA ZURETZAT HONDARRIBIKO TXOKORIK POLITENA?




.....

.....

.....

.....



6

EZAGUTU HONDARRIBIA

EGIN TXOKO HORREN MARRAZKI BAT  
EDO ITSATSI ARGAZKI BAT



## MARKATU ZURE IRUDIKOZ EGIA DIREN ESALDIAK:

HONDARRIBIA POLITA DA

HONDARRIBIAN TRENA DAGO

HONDARRIBIAN PIRATAK BIZI DIRA

HONDARRIBIAN HONDARTZA DAGO


HONDARRIBIAN FABRIKA ASKO DAUDE

HONDARRIBIAN EURI ASKO EGITEN DU

MARTXELA BALEA HONDARRIBIKOA DA

HONDARRIBIAN EUSKARAZ HITZ EGITEN DA

HONDARRIBIAN BASERRIAK DAUDE



HONDARRIBIA, HAIN HIRI POLITA IZANIK, **MIKEL GARIKOITZ** ABESLARIAK,  
"MAITE EDERRA" KANTUA ESKAINI ZION. NIRI OSO EDERRA IRUDITZEN ZAIT.  
HARA ZER DION LELOAK:

**MAITE ZAITUT, MAITE, ZORATZERAINO!  
EDERRAGORIK EZ DA ZU BAINO!  
ZEUREA DUT NIK BEGIAN ARGIA,  
TA ZUREKIN BERRIZ PENAK ZER DIRA?**

ZURI ERE EDERRA IRUDITZEN BAZAIZU, **IKASI BURUZ LELOA ETA ABESTU**  
GUZTIEK BATERA ETXEAN, IKASTETXEAN, KALEAN.

**ENTZUN** ABESTIA TELEFONOA EDO  
TABLETA BIDI KODEAREN GAINEAN JARRIAZ.




# NOLA SORTU ZEN LURRA?

DUELA MILAKA ETA MILAKA URTE, EUSKAL HERRI GUZTIA **URPEAN** ZEGOEN, ITSASOAK ESTALTZEN ZUEN DEN-DENA. LUR MUGIMENDUEN ONDORIOZ, GELDIRO-GELDIRO, LURRA URPETIK SORTZEN JOAN ZEN. MUGIMENDU HORIEN INDARRAK, HARRI-GERUZAK TOLESTU ETA MENDIAK SORRARAZI ZITUEN.

GAUR EGUNGO GURE MENDI TONTORRAK, GARAI BATEAN UREZ INGURATUTAKO UHARTEAK IZAN ZIREN.

HONDARRIBIA URPEAN ZEGOEN. EUSKAL HERRIKO ARROKARIK ZAHARRENAK GUGANDIK HURBIL BADAUDE ERE, LAPURDIN, AIAKO HARRIKO INGURUKOAK ZAHARRENETAKOAK DIRA. JAIZKIBEL MENDIA ERE OSO ANTZINAKOA DA ETA HAREN HISTORIA ARROKETAN IDATZIA DAGO.






# JAIZKIBEL, GURE BABESA

JAIZKIBEL MENDIA, BIDASOA IBAIAREN ETA ITSASLABARREN ARTEAN DAGO KOKATUTA ETA HONDARRIBIA BABESTEN DU.

BADAKIZU NONDIK DATORREN **JAIZKIBEL** IZENA? ZEIN DEN BERE ESANAHIA? JUAN SAN MARTINEK, HONDARRIBIAR KULTURGIZON OSPETSUAK DIO, **HAITZ-GIBEL**-ETIK DATORRELA; HAU DA, HAITZAREN ATZEKALDEA. ITSASOARI BEGIRA DAGOEN ARROKAREN ATZEALDEA BERAZ.



10

EZAGUTU HONDARRIBIA



## JUAN SAN MARTÍN

1922AN EIBARREN JAIO ETA GURE ARTEAN BIZI IZAN ZEN **KULTURGIZONA** DUGU: IDAZTEA, ARKEOLOGIA, ETNOGRAFIA ETA MENDIA ZITUEN GUSTUKO. ARARTEKOA ETA EUSKALTZAINA IZAN ZEN ETA 2005EAN HIL ZEN HONDARRIBIAN.

GEHIAGO JAKIN NAHI BADUZU BERARI BURUZ, HURBILDU TELEFONOA EDO TABLETA EZKERREAN DAGOEN KODERA



# BIZITZAREN SORRERA

BIZITZA **ITSASOAN** SORTU ZEN. NOLA DAKIGU HORI? FOSILAK AZTERTUAZ. ETA, ZER DIRA FOSILAK?: ASPALDIKO ANIMALIA EDO LANDAREEN AZTARNAK, HARRI BIHURTUAK. ZUK BADUZU FOSILIK ETXEAN? EKARRI ETA KONTATU HAREN ISTORIA.

LANDAREETAN, BATZUK ERE, OSO ANTZINAKOAK DIRA. IRATZEAK ETA AZERI-BUZTANA ESATE BATERAKO, MILIOIKA URTE DITUZTE, ETA ORAINDIK ORAIN, GURE HERRIAN GOITTI ETA BEITTI BAGABILTZA IKUS DITZAKEGU, ARRUNT UGARIAK BAITIRA TOKI HEZEETAN. AZERI-BUZTANA, HONDARRIBIKO BARATZE INGURUETAN, PADURATAN, TALAIA-BIDEAN ETA ABAR ANTZEMAN DEZAKEGU ETA ERABILERA UGARI DITU, LUR ONGARRI, SENDABELAR...




# PARAMOUDRAK

JAIZKIBELEN, EGITURA BITXIA DUTEN  
HARRI BATZUK AURKITUKO DITUGU:  
**PARAMOUDRAK.** GEOFORMA HAUEK,  
USTEZ, ORNODUNEK ZULATUTAKO  
GALERIAK DIRA, ETA EZ DAGO MUNDUAN  
TOKIRIK, JAIZKIBELEKO ITSAS-ERTZEAN  
ADINA DAUDENIK.



# BIZIDUNAK



HARRIAK, FOSILAK, LANDAREAK, IKUSI DITUGU ORAIN ARTEAN,  
BAINA... ZEINTZUK IZAN ZIREN LEHEN BIZIDUNAK JAIZKIBELÉN,  
ZURE USTEZ?... DINOSAURUAK???

BADAKIZU EUSKAL HERRIAN DINOSAURUAK BIZI IZAN ZIRELA?  
EZETZ? BAIETZ? ESAN ETXEKOEI ARAKATZEKO BIDI KODEAN ETA  
IKUSI HAIEKIN BATERA ZER AGERTZEN DEN.



ELUR-OREINAK ERE BIZI IZAN ZIREN EUSKAL HERRIAN, BAINA ORDUTIK  
GAURDAINO DESAGERTU EZ DIRENAK, BERTAKO ZALDI AK DITUGU, **POTTOKAK**.  
EZAGUTZEN DITUZU? ARGAZKIAN AGERTZEN DIRENAK DIRA.

HURRENA JAIZKIBELÉN BARRENA IBILTZEN ZARENEAN, ADI IBILI, ERNE,  
SEGURU BAT EDO BAT DUZULA BISTAN. JAKIN NAHI DUZU ZEIN LEIZE-  
ZULOTAN DAGOEN ZALDI MORDO BAT MARRAZTUTA?

ORDENATU HIZKIOK ETA JAKINGO DUZU:



.....  
BIDI KODE HONETAN IKUS DEZAKEZU GEHIAGO.



# LEHEN GIZAKIA PALEOLITOA

LURRAREN HISTORIAREKIN ALDERATUTA, GIZAKIAREN HISTORIA OSO LABURRA DA. DUELA 8.300 URTE AURKITU ZEN HONDARRIBIAN, TXOTXIPIN, EHORTZITAKO PERTSONA BATEN HEZURRA, EUSKAL HERRI OSOKO GIZA-EHORZKETA ZAHARRENA.

ATZAMANDAKO HEZUR HORI, METRO TA ERDIKO ALTUERA ZUEN GIZONARENA DA, 30-40 URTE INGURUKOA. LAPAK, MUSKUILUAK ETA HORRELA KOAK JATEN ZITUEN. JAIZKIBELEN BIZI ZEN ETA ORAIN ARTEAN AURKITUTAKO KANTAUARIKO LEHEN ARRANTZALEA DA.

## IKUS MARRAZKIAN NOLA IRUDIKATZEN DUDAN NIK >

TENORE HARTAN, KANPALEKU TXIKIETAN BIZI ZIREN. ETXOLAK ADARREKIN ERAIKITZEN ZITUZTEN ETA LARRUAREKIN ESTALI. HIRUZPALAU ETXOLA ZEUDEN ELKARREN ALDAMENEAN, HAIEN ERDIAN SUA ZUTELA. ERREKETATIK GERTU KOKATZEN ZIREN.




# BIZIMODUA

SASOI HOTZENETAN, BABESTEKO, **HAITZULOAK** ERABILTZEN ZITUZTEN BIZILEKU. ASKO DAUDE EUSKAL HERRIAN. HONDARRIBIAN ORDEA, MIMARRIA (HAREHARRIA) DENEZ NAGUSI, HAITZULOAK BAINO, BABESLEKUAK ZITUZTEN JAIZKIBELÉN.



16

EZAGUTU HONDARRIBIA



MARGOTU EZAZU









# ELIKADURA

LEHEN GIZAKI HAIEK, IBILTARIAK ZIREN, EHIZA ETA ARRANTZA NON, HAIEK HARA, ETA EHIZATUTAKO ANIMALIEN LARRUAREKIN JANZTEN ZIREN.

**ANIMALI UGARI ZEUDEN ORDUAN:** ERRINOZEROAK, MAMUTAK, ERBIAK, POTTOKAK, ZALDIAK, BASURDEAK, OREINAK, BASAKATUAK...

**FRUITUAK, HOSTOAK ETA SUSTRAIAK** JATEN ZITUZTEN; BAITA EHIZATUTAKO ANIMALIEN HARAGIA ETA ARRANTZATUTAKO ARRAINAK ERE. KLIMA LEUNDU AHALA, ITSASERTZEKO ELIKAGAIAK ERE JATEN HASI ZIREN: LAPAK, KARRAKELAK, OSTRAK, TXIRLAK,...



# TRESNAK

ARRANTZARAKO, ENBOR HUSTUAK ERABILTZEN ZITUZTEN POTIXU MODURA, INPERMEABILIZATUTAKO LARRUEKIN ESTALIAK. SAREAK ERE ERABILTZEN ZITUZTEN.

TRESNAK, HASIERAN, **ZUREZKOAK** ZIREN GEHIENAK; BAINA HARRIA LANTZEKO TEKNIKAK GARATZEN JOAN ZIREN HEINEAN, HARRIZKO ZEIN **HEZURREZKO** LANABES UGARI EGITEN IKASI ZUTEN: ORRATZAK, GEZI-PUNTAK, ARPOIAK, AMUAK ETAB. ESKERRAK JAIZKIBELÉN **SUHARRI** ASKO DAGOEN; IZAN ERE, ASKO GUSTATZEN ZITZAIEN SUHARRIA, ERREZA DELAKO LANTZEKO, AHO ZORROTZA DUELAKO ETA ASKO IRAUTEN DUELAKO.



## ERANTZUN BAI EDO EZ. LEHEN GIZAKIEK...



...ADREILUZKO ETXOLAK EGITEN ZITUZTEN →

BAI

EZ

...ARDOA EDATEN ZUTEN →

BAI

EZ

...BOLIGRAFOEKIN IDAZTEN ZUTEN →

BAI

EZ

...ARRANTZARAKO AMUAK ETA ARPOIAK EGITEN ZITUZTEN →

BAI

EZ

...SUSTRAIAK JATEN ZITUZTEN →

BAI

EZ

## OSATU HITZAK ETA MARKATU GARAI HARTAN JATEN ZITUZTENAK


P-T-T- T-RT-LA →

S-GA--A →

MAK-R-O-AK →

G-ZT- →

H-R-G-A →



# SUA



ORDUKO GIZAKIEK, SUA EGITEN BAZEKITEN.

SUHARRIAREKIN SORTUTAKO **TXINPARTAK ERAGINEZ** PIZTEN ZUTEN.

ARRUNT GARRANTZITSUA ZEN GARAI HARTAN SUA EGITEN JAKITEA.

BERARI ESKER, ANIMALIA ARRISKUTSUENGANDIK BABES ZITEZKEEN,

HOTZA UXATU ZEZAKETEN,...



ZENBAT ERA EZAGUTZEN DITUZU SUA EGITEKO?

.....



ZEINTZUK DIRA ZURE USTEZ SUAREN ALDERDI ONAK?

.....

ETA ARRISKUAK?

.....

KALKULATU ETA IPINI HIZKI BAKOITZA BERE TOKIAN.

BUKATUTAKOAN, SUA EGITEKO OSAGAI NAGUSIA AGERTUKO ZAIZU:



|          |              |          |              |          |             |          |              |
|----------|--------------|----------|--------------|----------|-------------|----------|--------------|
| <b>A</b> | <b>20-16</b> | <b>I</b> | <b>17-10</b> | <b>R</b> | <b>10-5</b> | <b>U</b> | <b>15-13</b> |
| <b>H</b> | <b>2+1</b>   | <b>S</b> | <b>19-18</b> | <b>R</b> | <b>4+2</b>  | <b>A</b> | <b>5+3</b>   |

.....  
1      2      3      4      5      6      7      8


# NEOLITOA

JENDEA LURRA LANTZEN HASI ZEN.

HORRETARAKO OSO LAGUNGARRIA DEN **GOLDEA**

ASMATU ZUTEN ETA ORDUTIK AUERRERA DITUGU

**BARATZAK ETA BARAZKIAK.**



ANIMALIAK ETXEKOTU ZITUZTEN: ARDIAK, AHUNTZAK, BEHIAK,... ETA HONELA HASI ZIREN ARTZANTZA, ABELTZAINNTZA.

JANZTEKO, LANDARE ZUNTZAK ERABILTZEN HASTEN DIRA (LIHOA) ETA ARTILEA (ARDIAREN ILEAREKIN EGINDAKO HARIA).


GARAI HORRETAN, HERRIXKA FINKOAK SORTU ZIREN. PIXKANAKA, BASERRI ANTZA HARTUKO DUTEN ETXEAK ERAIKITZEN HASI ZIREN, EGITURAN EGURRA ERABILIAZ.

HAU GUZTIA, NIRE KONPARTSAKO LAGUN DITUDAN **FRANTXISKA TA TXANTXANO** BASERRITARREK KONTATU DIDATELAKO DAKIT. JAIK ALAITZEN EZ GABILTZANEAN, XAIAN GORDETZEN GAITUZTENEAN, BLAGAN JARDUTEN DUGU ETA ISTORIO-MISTORIO UGARI KONTATZEN DIOGU ELKARRI.




# EZAGUTZEN DITUZUE ERRALDOIEN KONPARTSAKO FRANTXISKA ETA TXANTXANO BASERRITARRAK?



ASPALDI BIZITAKO BASERRITARRAK DITUGU BIAK, ETA AGIAN ITSASOA ETA ARRANTZAGATIK EZAGUNAGOA BADA ERE GURE HERRIA, BERTAN BASERRI UGARI DITUGU. EZAGUTZEN DUZU HONDARRIBIKO BASERRIREN BAT? PLANOAN DITUZU BATZUK. **MARKATU EZAGUTZEN DITUZUNAK.** EZAGUTZEN EZ DITUZUNAK, GURASO EDO LAGUNEKIN ANTOLATUTAKO IBILALDIETAN IKUS DITZAKEZU.



# TRIKUHARRIAK

BADAKIGU NOLA BIZI ZIREN GURE ARBASOAK, BAINO ZER GERTATZEN ZEN HILTZEN ZIRENEAN? HILDAKOAN, **HARRIZ EGINDAKO ERAIKIN SAKRATUETAN** LURPERATZEN ZITUZTEN, LEKU ARGITSUETAN. ERAIKIN HAUEI, MEGALITO ESATEN ZAIE ETA HIRU MOTA DAUDE: TRIKUHARRIA, KROMLETXA ETA MENHIRRA EDO ZUTARRIA.






**JAIZKIBEL**EN ERE BADITUGU, BAINA IKUSTEKO ZAILA DA,  
DENBORA PASA AHALA, LURRAK IA-ESTALI EGIN DITUELAKO.

# INDUSKETA

KONTURATU ZARA GURE ARBASOAK NOLA BIZI IZAN ZIRENAREN INGURUKO INFORMAZIOA EMATEN DIGUTELA AURKITUTAKO AZTARNA ARKEOLOGIKOEK? ARKEOLOGOAK IZATEN DIRA AZTARNA HORIEN BILA IBILTZEN DIRENAK. HORRETARAKO, INDUSKETA LANAK EGITEN DITUZTE.



# BURDIN AROA



BURDIN AROA ESATEN DIOGU, METALA LANTZEN HASI ZIREN GARAIARI. HONI ESKER, TRESNA UGARI SORTU ZITUZTEN: GOLDE HEGALAK, IGITAIK, MOTA ASKOTAKO AIZTOAK, LANTZAK, EZPATAK, ILTZEAK, GILTZAK, ALIKETAK, AMUAK, TXANPONAK... OSO ERABILGARRIAK EGUNEROKOTASUNEAN.

GARAI HONETAN HERRIXKAK ASKO HAUNDITU ZIREN, ETA BERTARA ETORRI ZIREN BIZITZERA EUROPATIK ERE. HERRIXKA GEHIENAK GOTORTUTA ZEUDEN, BABESTEKO.

GAUR EGUN GIPUZKOA DEITZEN DUGUN LURRALDEAN ADIBIDEZ, 10 HERRIXKA INGURU EGON ZITEZKEELA PENTSATZEN DUGU (GAUR EGUN 89 DAUDE).

GIPUZKOAN KOKATUTA DAUDEN ZEIN HERRI EZAGUTZEN DITUZU?:

.....

.....







# ZER IKUSI DUZU?




LURRAREN  
SORRERA



**PALEOLITOA:**  
BIZIMODUA,  
ELIKADURA,  
ETA TRESNAK

SUA



**NEOLITOA:**  
BARATZAK  
TRIKUARRIAK



BURDIN  
AROA



2. MAILA

“ZER IKUSI, HURA IKASI.”

# ZER IKASI DUZU?



A series of horizontal dotted lines for writing, spanning the width of the page.



Gure esker ona adierazi nahi diegu:

**IKASTETXEAK:**

Ama Guadalupekoa ikastetxeko zuzendaria den Kizkitza Montes  
San Jose ikastetxeko zuzendaria den Jagoba Aiestaran  
Talaia HLHI ikastetxeko zuzendaria den Idoia Latasa  
eta ikastetxe hauetako guztietako LHko koordinatzaile eta irakasleak

**HONDARRIBIKO UDAL TEKNIKARIAK:**

Arma Plaza Fundazioaren arduraduna den Miren Ayerbe  
Euskara Zerbitzuko arduraduna den Karmelo Goikoetxea  
Gazteria-hezkuntza teknikaria den Lurdes Cabezon  
Liburutegiaren arduraduna den Kote Gebara

**IRUNGO BERRITZEGUNEKO:**

Carmen Ruiz, LHko aholkularia  
Iñaki Intxausti, BHko aholkularia  
Maite Pardo, HH eta LHko aholkularia

**BESTEAK:**

Enrike Lekuona  
Floren Portu  
Alvaro Arrizabalaga  
Maria Jose Iriarte-Chiapusso

**Egileak:**

Lore Erriondo (Proiektu-burua)  
Arma Plaza Fundazioa  
Oihana Lekuona

**Aholkularia:**

Arantxa Urbe



978-84-697-8203-3



HONDARRIBIKO UDALA



ARMA PLAZA  
FUNDAZIOA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua

